BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
580. zkia.
XIV. urtea
2006ko uztailaren 14a



Tania Kuchay

# Txernobilgo kutsaduratik Sallobenteko belardietara

[ GEHIGARRIA ] MOTORRA • [ KILIBARREN ] SANTANA JAIAK

# MILAR BIRE

Ubitarte, 11 - 943 74 14 87

A KLASE ENERGETIKOA
6 KG. KARGA



## GARBIGAILUA FAGOR LFB 100

Zentrifugazioa: 1000 r.p.m. Karga aldakorra. Erraz lisatzeko tekla du. Zentrifugazioa ez egiteko aukera du.

**294 €** Lehen **369 €**



## AIRE GIROTU ERAMANGARRIA ORBEGOZO ADR 32

Frigoria/orduko: 3000
Potentzia: 1350 W. 12 orduko tenporizadorea. Urrutiko kontrola.

**359 €** Lehen **409 €**

A KLASE ENERGETIKOA



## BAXERA-DETERGENTEA BOSCH SGS 44 E 52 EU

Karga aldakorra. Erregenerazio elektronikoa. 4 garbitze-ziklo. Automatikoki garbitzen den iragazkia.

**289 €** Lehen **364 €**



HD READY
BI SARRERA HDMI

## TELEBISTA LCD 32" PANASONIC TX 32 LX 60

Bereizmen haundiko telebista: 1366 x 768 WXGA
Kontrastea: 1200:1

**1299 €** Lehen **1499 €**




**Zure erosketak finantziatzen ditugu**

**75€-ko beherapena egingo dizugu zure etxetresna elektriko zaharra berritzean.**

Eskatu informazioa gure dendan.





# ZOZOAK BELEARI...



**AITZOL GARMENDIA**

Aupa Sare,

Constanza lakuaren edertasunari so bidaltzen ditinat uztaila honetako zozokeriak. Zeru urdin eta zelai-mendi berdeen ispilu zabal honek, iparralderago nonbait, Alemania nahiz Austriako ertzak bustitzen ditizten.

Suitzar paradigma linguistikoaz galdetu zionat gure cicerone lokalari. Irrifarrez, oso majo, oreka eta hegemonia koloreko errealitate bat margotu zidan. Normala begitandu zaidan, suitzar-alemanen koadrilakoa dun hau, ehuneko hirurogeita pikuaren taldekoa. Ehuneko beste hogeita pikua suitzar-frantsesa dun, koadrila txikiagoa, bai. Baina frantsesak ditun, ondoko bizilagun erraldoiaren apendizea. Eta hegoaldeko Ticcinoko italianoak? Ez, haiek amahizkuntza italianoa omen diten! Baina alemana eta frantsesa ikasi gabe gordina bizitza beren kantoitik kanpora. Baita barrura begira ere, ondoko anaien destino turistiko garrantzitsua izaki.

Joan zaigun beraz pikutara orekaren asuntoa eta hemen ditun berriz diglosia nahiz elebi edo elehirutasuna. Ipuin zaharrak guretzat.

Bitartean, mendebaldera bergira frantses bizilagunak burumakur imajina zitzakenat. Ezin ulertu nola beren argeliar abanderatuenak buruz erantzun dion, burua galdu ostean, italiar sudurluzeari. Frantses honek ulertzen din italiarrez itxuria...

> **«Ciceroneri Suitzar paradigma linguistikoaz galdetu zionat»**
>
> AITZOL

> **«Nortasun anitzeko herrialdea zirudik Suitzak»**
>
> SARE

**SARE GURRUTXAGA**

Kaixo Aitzol,

Lekutatik hator gaurkoan zozoarena egiten! Zer galdu zaik bada Suitzan? Kontatu ezinezko kontu zikin txuritu beharreko bat akaso? Lasai, gauza hoiek "back stage"-ean geratuko dituk eta.

Halere, ederra kaka nahastea suitzarrena, ezta?

Nolabait gaur egun normalizaziora bidean doan mestizaia linguistikoa aspaldidanik ditek ezagun suitzarrek.

Hiru hizkuntza ofizial eta bat bera ere ez beraiena propioa. Nortasun anitzeko herrialdea zirudik Suitzak. Baina nork ez dik nortasun anitza bizi gaituken aro hontan?

Guk ere Constanzaraino joan beharrik gabe hizkuntza ezberdinak entzuteko aukera diagu Maalako parkean jarriz gero: arabiera, txinera, gaztelera, galiziera, bereberea, gure-gurea(euskera, alegia), gaztelera, indiera, mexikarrera... Elgoibartik atera gabe! Horra nortasun aniztasunaren beste adierazgarri bat.

Dena dela, eta gaiz aldatuz, Suitza izan zitekek dudarik gabe munduko futbol talde onenaren irudia; ez al dituk ba Italiarrak, Frantsesak eta Alemanak podiumeratu? Nolako festa, nolako poza... demasa behar dik maite duan herrialdea animatzea horrelako txapelketa batetan, ez? Nahiz eta futbola gorroto. Ea laister, oso laister aukera diagun.

---

> «MINTZAIRA ARIMAREN LARRUAZALA DA»
>
> Fernando Lazaro Carreter

## Nahaste Borraste

Beste urte batez (guk antolatzen dugula 19.a izanik) eta Nahaste Borrastearen edizio berri baten ostean, ekitaldi hau aurrera ateratzen lagundu diguten entitate eta pertsona guztiei gure eskerrik beroena ematea da lerro hauen helburua, guztiei banan-banan eta pertsonalki ematea ezinezko zaigu-eta.

Hasteko, parte hartu duten 28 neska-mutilei gure animoak, datorren urtean ere, aurten erakutsi duten lagun arteko umore eta kiroltasuna adierazi dezatela.

Herriko zenbait tabernari, dendari eta enpresek erakutsitako eskuzabaltasunari esker sariak eta opariak eman ahal izaten ditugu. Zerrenda oso luzea izanik, denak aipatzea ezinezkoa zaigu, baina aipamen berezia merezi dute, batetik, Rotulos Iraegi (hauek emandako pankartek eta dortsalek beste itxura bat ematen baitiote froga honi) eta bestetik, hainbat eta hainbat urtetan euren eskaparatea sarien erakustoki modura lagatzen digun Agirre jantzidendak.

Mila esker Euskal Herriko triatloi federazioari, Udala eta Kirol Patronatuko langileei, bidea zaintzen aritu direnei, eta baita ekitaldi honen berri eman duten komunikabide guztiei ere.

Ezin gutun hau bukatu Plazan sariak banatzen ibilitako kirolari beterano eta ezagunei (Jose Gurrutxaga, Iñaki Konde eta Iñigo Arriola), baita mikrofonotik berbetan aritutako Antton Iriondori gure eskerrik beroenak eman gabe. Guztioi besarkada bero bat, zuek ematen baitigizue 23. Nahaste Borrastea antolatzeko indarra.

**Kimetz Elkarteko Zuzendaritza Batzordea**

## Basarteruel-II

Basarte, dudarik gabe, auzo berezia da. Duela gutxi, Basarteko egoera jasanezina salatzeko, auzoko portal guztietako ordezkariak bildu ziren plataforma bat osatuz, auzo guztiaren kexak udalari plazaratzeko. Kexa horien helburua ez zen Udala errudun bihurtzea (Basarten denok dakigu Udala ez dela gure arazo guztien atzean dagoen bakarra), konponbidea Udaletik abiatzea baizik. Harrezkero, zerbait egin da: zakarrontzi batzuk, seinaleak, pintura pixka bat... aspaldítik, bizigarritasun baimenak eman zirenean, eduki behar zuena. Baina hasi zenak ez du jarraipenik izan: basartetar guztiok ez dugu ekologistak izateko eskubiderik (beira eta kartoia ezin dugu denok birziklatu, kontenedoreak falta direta ); belarra sekuoiak bezain altua da (gure leihoetatik sartzear zegoela, moztu zuten). Parkeko zakarrontziek asteak ematen dituzte hustu gabe, eta zikinkeria, lurrean botata, askotan guk jaso behar izaten dugu... Ah! gure parkea... gure semealabek aurpegia eta belaunak zauriz beteta dauzkate, herriko gainontzeko parkeetan ez bezala, gurean harri latza eta gogorra dagoelako; bere egoera penagarria da, lau egur zati zahar eta apurtuta: berritu ez den parke bakarra!. Zerga berdinak ordaintzen ditugunez, berdintasuna eskatzen dugu. Ez dakigu zer agindu zion Basarteko konstruktorak aurreko legealdiari, Udaletik askotan esan digutelako hainbat gauza konpontzeko konstruktorara jo behar genuela: hori ez da gure arazoa!. Barkatu, baina ez! Nire etxe barruan dauden arazoak etxea saldu zidanari erreklamatuko dizkiot, berak leku fisiko hori saldu zidalako, baina hortik kanpo dagoena (kaleak, parkeak, farolak, espaloiak..) ez dira gure propietatea. Seguraski oraingo legealdiak sortu ez dituen arazoei aurre egin beharko die, baina ea behingoz Basarteri merezi duen tratua (besteei ematen zaien berdina, ez txarragoa ez hobea) ematen diogun. Azken finean, existitzen da. Ala ez?

**Alberto Iriondo**

## Gurea den bertsolaritzari eusten laguntzeagatik

Lehengo larunbatean ospatu zen Euskadiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Hantxe elkartu ginen Zuberoa, Behe Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa, Bizkaia, Araba eta gipuzkoarrak. Oholtza gainetik eta bakoitzak bere erara eskertu zituzten hainbat bertso eskola eta irakasleren lanak. Baina nik, oso era sinplean bada ere, BARRENen bitartez eskertu nahiko nuke Errazu Bertso Eskola eta bertan lanean diharduten Irati, Pake, erlantz eta Ainhoa, geurea den bertsolaritzari eusten laguntzeagatik.

**M.I.O.**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

barren
Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com
Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Eider Iriondo, Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.565 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

# KEXAK

• Joan zen asteko kexari erantzunez, Migel Anjel Mujika Hirigintzako arduradunak Plaza Txikitik ez dutela aparkalekurik kendu azaldu digu: "Lurrazpiko kontenedoreen mekanismoak lekua eskatzen du zaborra ateratzeko, horregatik jarri dira piboteak Plaza Txikian, baina toki honetan lehen ere ezin zen aparkatu. Piboteak dauden tokian lehen kontenedoreak zeuden, eta zuhaitz artean aparkatzea debekatuta zegoen. Aparkaleku kopuru berdina daukagu lehen eta orain".



• Altzolako etxebizitza bat guztiz lagata dago eta alboko bizilagunok jasaten dituzte kalteak: "Duela urtebete inguru, bilbotar batek Avenida Donosti kaleko etxea erosi zuen Udalak eginiko enkantean. Etxe horretan ez da inor bizi, itxita dago eta ez dute batere zaintzen, erabat lagata dago eta alboko bizilagunok jasaten ditugu kalteak. Loretegi guztia laharrez beteta dago eta intsektu mordoa dabil bertan. Ezin ditugu gure etxeko leihoak ireki, denak barrura sartzen zaizkigulako. Askotan joan naiz udaletxera etxe hori garbitzeko eskatuz, baina ez dute ezer egiten. Bilbotar honen telefonoa ere eskatu dut berarekin hitz egiteko, baina ez didate ematen. Ni prest nago etxe hau txukuntzeko, baina norbaitek baimena eta giltza eman behar dizkit. Horrela ezin dugu jarraitu".



• Deba ibaira produktu zuriren bat bota dute aste honetan: "Txankakuako zubi azpitik hondakin zuriren bat ateratzen zen asteartean. Badirudi hemen inguruko enpresaren batek isuritako hondakinen bat zela. Honelako gauzekin kontu handiagoa izan beharko lukete enpresek eta baita bizilagunek ere!".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
943 74 41 12

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Gipuzkoako Foru Aldundia
DANOBAT
gizarte ekintza
kondia
GOITI GRUPO DANOBAT
ESTARTA GRUPO DANOBAT



# URRUZUNOREN luma

## *Amaren eskuak*

Bost hatzezko basamortu dirudite sarri gure ispilu diren eremu lausotuek. Baina ez, gaurkoan ez. Basamortu huts baino zerbait gehiago dira aurrean ditudan eskuak. Lanaren, malko gazien, laztan goxoen...gotorleku. Bere begiak itxita egon arren, eta airean hitzik dantzan aritu ez arren istorioak sor ditzaket amaren eskuei so nagoela. Oraindik gogoan dut gauero lo hartu nezan masailean egiten zizkidan laztanak, ile leunean zehar maitekiro eginiko ferekak... Hitzik gabeko maitasun adierazpenak! Betirako barnean geldituko direnak eta sentimenduen fosil gardenak.

Askotan ez dakigu zenbat balio dezaketen eskuen bidezko ukituak, laztanak, dantzak... Dantzari baten kriskitin hotsen aitzindari baino zerbait gehiago da. Garena eta izan nahi duguna; eman dezakeguna eta eman nahi duguna... Benetan maite nauen batek erakutsi dit zenbat balio dezakeen. Berari esan ez arren, hitzon bidez kontura gaitezen eskutik helduz eta zimurren bidea arakatuz , ilunabarrare-n koloretan ametsak eta etorkizuna eraiki ditzakegula aldaezin bihurtutako lerroen bidez.

***Maialen Olazabal***

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### Mª ANGELES AZPIAZU

Mª ANGELES AZPIAZU
SASTRERIXAKUA
(MENDARO)

**Uda sasoian gehien janzten duzun arropa?**
Tirantedun kamisetak, ahal bada kotoizkoak. Eta oinetan sandaliak.

**Zein da zure dendan gizonek emakumei egiten dieten oparirik ohikoena?**
Kamiseta bat edo barruko arropa konjunto polit bat.

**Eta alderantziz; emakumeek gizonezkoei?**
Niki bat, prakak... beste munduko gauzarik ez.

**Dotorezia: berezkoa ala ikasi egin daiteke?**
Aholku on batzurekin ikasi ere egin daitekeela uste dut.

**Zein dira janzten dotoreenak, zure ustez?**
Azkoitiar moduan min ematen dit onartzeak, baina azpeitiarrak dotore janzten dira. Halere, baita azkoitiarrak ere.

**Mendaroko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati?**
Lizarrolako paseoa polita da, geu ere bertan ibiltzen gera-eta.

**Zerk ematen dizu zuri "Bizi Poza"?**
Musikak, txarangak, jai giroak...

**Zein liratezke 'zure neurrira' eginiko udako oporrak?**
Mendia eta hondartza uztartzen dituena, bietara ibiltzen baikara. Bazterrak ikustera joatea gustatzen zaigu.

## komikia

*Hil da gero...*




Kokoe 067

## [AKORDATZEN NAIZ]



### ANTONIO BERASALUZE

1932an jaioa

# «Oporrak eta parrandak»

Oporretan Lekeittiora juten giñan. Kotxia hartuta, lehenengo oporrak haraxe egin genduzen. Kanpora jun izan geran biajietan, kotxia etxian laga dogu. Autobusez edo hegazkinez, beste moduren baten jun izan gera. Benidormera askotan jun izan naiz, eta iñoiz ez naiz kotxian jun. Hemen ibiltzeko eta distantzia motzetan mobitzeko bai, baiña distantzia luziak egitteko etxata gustatzen. Askoz trankillago juten naiz. Oporrak hartutakuan, ez naban kotxia hartzeko gogorik eukitzen. Gero, han bihar banaban, ba igual alkilau egingo gendun kotxe bat, baiña hamendik eruan ez. Relojeruakin biajante bezela kilometro mordua egitten genduzen egunero, eta oporrak hartutakuan ez naban kotxian ibiltzeko gogorik eukitzen.

Gaupasatxoren bat egindakua naiz gaztetan, baiña ez zan gaur egun bezela. Orduan jaixak gehixago bizi izaten ziran egunez.

Ni herritik kanpora ez naiz asko urten parrandara. Nere gaixotasuna zala-ta, ez dot juerga asko egin gaztetan. Herriko jaixetan ibiltzia gustatzen jatan.



## [GURE BERBAK]

### *Kausazko egittura batzuk: ETA eta BAIT-*

Gaurkuan ere, kausazko esaldixekin jarraittuko dogu. Aurreko baten, Barreneko testu batian BAIKARA edo holako aditz forma bat ikusi naban, eta, aitortu bihar dot, ez zidan batere onik egin. Elgoibarko euskeran arrotza da *BAIT-* hori, eta nere ustez, ez dau balixo herriko hizkerara eta hiztunengana (zaharrengana, batez ere) hurbiltzeko. Horretarako, euskara batuan erabilli leiken egittura bat daukagu, gure artian arrunt-arrunta eta *BAIT*-en baliokidia: *ETA*. Hori bultzatuko nuke nik gure arteko jardunerako.

*1) Nun ezkonduko giñan, ba? Elgoibarren, bizimodu guztia Elgoibarren egin dogu <u>ta</u>.*
*2) Bueno, ez deixogun amenazu gehixegi eman koittauari, ehun urte jaukaz ixa <u>ta</u>.*
*3) Erromerixan, guk ez gendun dantzan asko egitten, ez genkixan <u>da</u>.*
*4) Orduan lokatzia egoten zuan, basarrixetara biderik etxaguan <u>da</u>.*
*5) Maalan, pelotan asko egin gendun guk, eleizako fatxadan, han kamiñuan ez zan autorik ibiltzen <u>eta</u>.*
*6) [...] baiña hori lehen; oiñ nun zer daguan etxakixat ixa <u>ta</u>.*
*7) - Egualdixan berri zuek jakitzen dozue guk baiño hobeto. – Bai, hemen goittikan ikusi ere gehixago egitten dogu <u>eta</u>.*

*Jesus Mari Makazaga*


LARRAÑAGA AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

TXERNOBILETIK ELGOIBARRERA

# ONGI-ETORRI, TANIA!

*Urtero bezala, atzerriko umeak iritsi dira Elgoibarrera uda pasatzera. Siberia, Sahara eta Ukraniako umeak iritsi dira besteak beste. Gaurkoan horietako ume bat etxean hartu duen familiarekin berba egin dugu. Begoña Arzuaga eta bere familiak Tania hartu dute etxean. Txernobiletik etorritako 8 urteko neskatxa da. Ekaina amaieran iritsi zen gure artera, eta bi hilabeteko egonaldia egingo du.*



## TXERNOBILEKIN SENTSIBILIZATUTA

Europako begi guztiak Txernobilera begira ipini zirenetik, 20 urte pasatu dira. 1986an Txernobileko Zentral Nuklearrak istripu larria jasan zuen, eta haren kalteak oraindik ere sumatzen dira. Adituek diotenez gainera, urte askotan jarraituko du radioaktibitateak Ukraniako airean. Umerik ezin da bizi Txernobil inguruan, eta nagusientzat ere kaltegarria da. Egoera larri honi buruzko erreportaje bat ikusi zuen Begoña Arzuagak telebistan. Haurdun zegoen bera, eta gai hau barruraino sartu zitzaion. Hango umeei laguntzeko zerbait egin behar zuela erabaki zuen. Beharrezko ateak jo eta Tania ekarri du etxera. San Lorentzo auzoko baserri batean bizi dira; Begoña, bere senarra, Ion txikia eta uda honetan, Tania.

Bi aste daramatza Taniak gure artean, eta Begoñak esan digunez, lehenengo astea oso gaizki pasatu zuen: "ikaragarria izan da neska honek pasatu duen astea, bere buruaz beste egin behar zuela ere, pentsatu nuen". Tania alaba bakarra da, anaia txiki bat hil zitzaion, eta egun ama, aita eta amonarekin bizi da. Oso gogorra egin zitzaion bere senideak han laga eta beste etxe batean sartzea: "Denbora guztia telefonoaren ondoan egoten zen, etxera deitu eta amarekin hizketan negar besterik ez zuen egiten. Baratzean lanean jartzen nuela eta jaten ez niola ematen kontatu zion amari. Etxera itzultzea nahi zuen, nola edo hala". Bilbora ere joan ziren arratsalde pasa, Guggenheim ezagutu eta Bizkaiko hiria bisitatzera, baina han ere egun oso txarra pasatu zuela kontatu digu Begoñak.

Tania ere baserri mundukoa da. Beren etxean baratza txiki bat daukate, eta bertako produktuak lantzen dituzte: "goserik ez dute pasatzen, ez daukate hemen besteko aukerarik, baina Taniaren familiakoak ez dira hain pobreak".







### LAGUNEKIN ASKOZ HOBETO

Elkarteko arduradunek telefonoa ezin zuela hainbeste erabili esan zieten, asko jota, astean behin: "gogor jarri ginen eta telefonoa kendu genion. Ez zuen ohera joaterik nahi, sofan egoten zen, telefonoaren ondoan. Harrigarria". Bigarren astean lagunak egin ditu eta beraiekin ateratzen hasi da. "Lagunak egin dituenetik askoz hobeto dago. Aste betean zuritik beltzera aldatu da. Orain pozik dago". Lagunekin ere egon gara, eta esan digutenez, keinu bidez ulertzen dira Taniarekin: "ez du euskaraz hitz egiten, baina poliki-poliki hasi da gauzak ulertzen".

### IGERILEKUA ETA HONDARTZA

Espainian eguzkia eta hondartza daudela esaten diete Ukraniako umeei hona etorri aurretik. Tania hondartza ezagutzeko ilusioz etorri zen, baina eguraldiak ez du asko lagundu: "Gaur joango gara hondartzara, orain arte Mintxetako igerilekuetan ibili gara, eta izugarri gustatu zaio. Arratsaldeko 16:00etan sartu zen uretan eta iluntzeko 20:00ak arte ez zen atera".

### ERREPIKATZEKO MODUKOA

Begoña eta bere senideak oso gustura daude, eta datorren urtean berriz saiatuko dira Tania hona ekartzen. Ion txikiak 3 urte ditu, eta Tania arreba nagusi bat da berarentzat. "Goizero bere logelara joaten da eta esaten dit *amatxo, Tania etorri da gaur ere*. Ez da konturatzen bertan lo egiten duela, baina oso ondo konpontzen dira biak. Oso pozik gaude, sekulako esperientzia da. Familia guztiak animatuko nituzke kanpoko ume bat ekartzera. 90 euro bakarrik ordaindu behar dira, hori ez da dirua, eta ematen zaien laguntza sekulakoa da".



## Txernobil



Ukraniako iparraldean dago Txernobil, Bielorrusiatik 17km-ra eta Rusiatik 35km-ra. 1986ko apirilean Txernobileko Zentral Nuklearreko erreaktore batek eztanda egin zuen. Egun hartan iparraldeko haizea zebilen, eta badirudi, Ukraniako iparraldeak kalte handiagoak jasan zituela. Eztandaren ondorioz 31 lagun bat-batean hil ziren, eta handik hilabetera beste 29 hil ziren uranioarekin kontaktua izan zutelako. Begoña Arzuagak asko irakurri du Txernobili buruz, eta berak esan digunez, kontraesan ugari dago: "Greenpeacek 500.000 hildako egon direla esaten du, baina Ukraniako Gobernuak 60 izan direla dio". Adituek diotenez, radioaktibitate handia dago oraindik airean, eta 1.000 urtetan ez da lurralde hori bere onera itzuliko. Radioaktibitate honen ondorioz, etxeko frutontzian egoten den fruta hazi egiten dela kontatu digu Begoñak.

Txernobil inguruko 30km-tan ezin da umerik bizi, eta nagusientzat ere arriskutsua da, kutsatua dagoelako. Istripua izan zenean ingurune guztia hustu egin zuten, baina jende askok bertara itzultzea erabaki du, horrek daukan arrisku guztiekin. "Heriotzak ez dira egun batetik bestera gertatzen, baina minbizi kasu asko dago. Hala ere, askok nahiago dute euren lurraldean hiltzea". Begoñak kasu bitxi bat kontatu digu: "1999an ume bat jaio zen Txernobilen eta familiakoek ezkutatu egin zuten. Gobernua enteratu egin zen eta umea kendu zion familiari. Sekulako polemika egon zen. Umea gurasoekin bizi toki arriskutsuan edo toki seguruan familiakorik gabe. Egoera zaila benetan".

Oso ondo ezagutzen du Begoñak Txernobileko egoera, baina ez da sekula bertan egon, eta gustatuko litzaioke noizbait bertara joatea: "semea txikia da oraindik, baina apur bat hazten denean egingo dut Txernobilera bidaia. Nire begiekin ezagutu nahi dut han gertatzen dena".

## [ PROTAGONISTA ]



### EduArrillaga

Edu Arrillaga argazkilari elgoibartarrak beste sari bat lortu du. Oraingoan, Alacanteko Guardamar Argazki Lehiaketan bigarren saria eman diote. Dominikar Errepublikan eginiko argazki bildumako lana aurkeztu zuen Edu Arrillagak; "Chichiguaren hegaldia" izenekoa. Dominikar Errepublikako umeek kalean jolasten duten jokoak eman dio bilduma honi izena. Bost urtetan bildutako 65 argazkik osatzen dute bilduma hau. Edu Arrillagaren helburua Dominikar Errepublikako umeen bizimodua erakustea da. Abenduan erakusketa egingo du Elgoibarren.

## [ NOTIZIA ]

# Sutearen ondorioz etxebizitzaren azken bi pisuak berritu behar dituzte

Eguerdiko 12:00ak aldera hasi zen sua astelehenean, San Frantzisko kaleko 3. zenbakiko azkenengo pisuan. Teilatupean dagoen tranpila txikian hasi zen sua, ustez, zirkuitulabur batek eragindа. Bikote gazte bat eta hiru urteko alabatxoa etxean zeuden une hartan, baina ez ziren ezertaz konturatu, esan digutenez, teilatutik kea ateratzen zen, baina beraien etxean ez zegoen ezer. 12:30ak aldera iristi ziren Eibarko suhiltzaileak eta 14:00ak alderako sutea kontrolpean zeukaten. Bizilagunek esan digutenez, eraikineko azken bi pisuak erabat berritu behar dira, suak eta suhiltzaileek erabilitako urak kalte handiak sortu dituzte-eta. Teilatuan dagoen zuloa ere, lehen bailehen berritu behar dutela esan digute.



**Amets epelean**

Bosgarren pisuko bizilagunak gauez egin zuen lan egun hartan eta suteak lo harrapatu zuen. Suhiltzaileek sua itzali ostean esnatu eta sukaldea urez beteta aurkitu zuen. Batzuk ondo egiten dute lo.

## [ ZENBAKIA ] 340.000

Udalak 340.000 euro gastatuko ditu urtean herriko lorategi eta berdeguneak mantentzeko. Udalak garrantzia handia eman dio itxura zaintzeari, eta erdiguneko berdugeez gain, auzoetakoak ere zaindu-ko dira. Guztira 14 hektarea landuko dira.

## [ ARGAZKIA ]




Koadrilako egoskorrena, burugogorrena zein den aukeratzeko I. Txapelketa antolatu du Aterpe jatetxean bazkaltzeko egunero elkartzen den herriko lagun talde batek. Azken lau hilabeteetan barixakuero egin dituzte bozketak eta Juan Villarchao Gil izan da irabazlea. Txapelketa honetako partaideak gremioetako langileak dira, 10 guztira; 8 gizonezko; emakumezko bat eta Aterpeko kamarera. Umore onaren eta urteetako adiskidetasunaren ondorioa izan da txapelketa bitxia. Eztabaidatzen hasita hauei irabaztea ez da makala!

# Emakume politikari ezagunak Ahotsak taldearen ekitaldian




Politika arloko izen garrantzitsuak bildu ziren Ahotsak taldearen aurkezpenean Herriko Antzokian: EAJko Elixabete Piñol, EAko Nekane Alzelai, Batasunako Jone Goirizelaia eta PSEko Gemma Zabaleta. Susana Mujika kazetari elgoibartarrak moderatzaile lanak egin zituen. Egungo egoera politikoaren errepasoa egin zuten emakume hauek, eta bide batez, Ahotsak taldearen nondik-norakoak azaldu zituzten. Euskal Herriko gatazka politikoaren konponbidean emakumeen ekarpenak mahai gainean jartzeko asmoz sortu zen Ahotsak taldea. Ideologia desberdinetako emakumeak batzen dira talde honetan, eure helburu bakarra, bakearen alde lan egitea izanik.

### Elgoibarko Ahotsak

Ekitaldi hau Elgoibarko Ahotsak taldeak antolatu zuen. Desberdintasun politikoak alde batera utzirik, herriko zenbait emakume bakearen alde batu dira gure herrian, eta hortik sortu da Elgoibarko Ahotsak taldea. Herritarrek oso ondo erantzun zuten eta jende dezente bildu zen Herriko Antzokian. Herri mugimendu baten hasiera izan da.

## Gurean Bai-Merkataritza egitasmoko 125 dendarik beste hiru urtetarako konpromisoak hartu dituzte

2003an Euskararen Aldeko hitzarmena sinatu zuten Elgoibarko dendariek, bakoitzak bere dendan euskararen erabilera indartzeko. 1. etaparen (2003-2005) balorazio positiboa egin ondoren, beste hiru urtez lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi dute herriko 125 dendarik. Dendari bakoitzari, hartu dituen konpromisoak betetzen laguntzeko, Gurean Bai-Merkataritza proiektutik "Euskara eskura" izeneko katalogoa banatu zaie. Bertan, egitasmoak eskaintzen dituen zerbitzu eta laguntzak laburbiltzen dira. Bestalde, arlokako hiztegi espezifikoak ere eskaini zaizkie.

Gurean Bai-Merkataritza proiektua ostalaritza alorrera zabaltzeko asmoa daukate arduradunek. Amaia Lasagabasterrek esan digunez, "dena guk nahi bezala badoa, urrian ekingo diogu taberna eta jatetxeen diagnosia egiteari eta 2007ko hasieran ostalaritzan euskara bultzatzeko plana martxan jarriko genuke".

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Maider Lete Bai ala Ez lehiaketako irabazlea

Maider Lete izan da BARRENeko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Gabi jatetxean bi lagunentzako afaria irabazi du. Lehiaketan parte hartzeko, astero BARRENeko Bai ala Ez atalean egiten dugun galderari bai ala ez erantzun behar zaio, 7505 zenbakira SMS bat bidaliz.



### Programa informatikoak euskaraz

Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak dirulaguntzak emango dizkie gestiorako programa informatikoak euskara hutsean jartzen dituzten elkarte eta denderi. Euskararen erabilera bultzatu nahirik, 600 euroko diru-laguntza emango die Udalak programa informatiko hori jartzen duteneí. Interesatuek, Udaleko Euskara Zerbitzuan jaso dezakete informazio gehiago: 943 744366.

### Merkatu Plazako zozketa

Ana Andonegi, Ana Gomez eta Jabi Usatorre izan dira hilabete honetako irabazleak. 60 euroko erosketa txeke bana jaso dute. Zorionak!



BARRENera ere iritsi dira oporrak, hurrengo alea abuztuaren 23an kaleratuko dugu.

# Egin al duzu oporretarako planik?

**MARISA EZPELETA**
Administraria
42 urte



"Abuztuko lehenengo astetan hemen inguruan ibiliko naiz eta azken astean Fuerteventurara joango naiz, hainbeste lan egin ondoren, hondartzan deskantsatzera."

**IGNACIO ROJO**
Ikaslea
11 urte



"Leonera joango naiz nire arrebarekin. Amama bertan bizi da eta bera bisitatzera goaz. Bizikleta lasterketa batean parte hartu eta igerilekuan ibiliko naiz."

**IÑAKI AMESTI**
Ikaslea
10 urte



"Mallorkara joango naiz amarekin astebete pasatzera. Hondartzara joan eta hoteleko igerilekuan ibiliko naiz. Jaietarako Elgoibarrera, nire eguna da gainera!"

**ARRATE ZUBIA**
Irakaslea
48 urte



"Mont Blanc-era joango naiz. 10 egun pasatuko ditut han beste emakume batzuekin. Handik itzulitakoan Elgoibarren ibiliko naiz apur bat deskantsatzeko."










[ GOMENDIOA ]

# Oporretarako botikina

Medikamentu bat hartzen duten pertsonek, dosi nahikoa eraman behar dute oporretara, batez ere, atzerrira doazenak. Izan ere, atzerrian ez da erraza izaten norberak hartzen duen botika aurkitzea. Oporretarako botikina arina izan behar da, baina aldi berean, egokia. Gaurkoan gomendio batzuk emango dizkizugu:

- Eguzkiak edo hezetasunak ematen ez dion tokian gorde botikina.
- Botikak noiz iraungitzen diren begiratu.
- Botikina bi zatitan banatu: batetik eskura eraman beharreko gauzak (tiritak, gasak...) eta bestetik hain garrantzitsuak ez diren botikak (hauek maleta handian sartu).

Norberak erabakiko du bere botikinean zein medikamentu sartu, baina batez ere, ondorengoak eramatea komeni da: Beherakoa mozteko botika, mareoarentzako, minarentzako, katarroarentzako, intsektuen pikadurentzako, alergientzako, eguzki erredurentzako, ebakientzako...

Leku tropikalen batera doanak gainera, hango gaixotasunen aurkako txertoak hartu beharko ditu, eta txertoen kartila norberarekin eraman beharko du. Botatzeko orratzak eta ura edangarri bihurtzeko pastilak eramatea ere garrantzitsua da.

Hotz egiten duen tokirako ezpainak eta azala babesteko krema ezinbestekoak dira. Eta aldiz, basamortura doanak, eguzkitako betaurrekoak eta hautsaz babesteko sare edo oihalen bat eraman beharko du.

Botika garrantzitsuenak hobe da etxetik eramatea. Hala ere, kontuan eduki behar da hegazkinean ezin dela orratzik edota guraizerik sartu, beraz, gauza hauek bertara iritsitakoan erostea komeni da.


# [ OSASUN GIDA ]

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK
Kemen Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00
Sanatana Dharma Yoga Elkartea
Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131
Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30
*Mendaro*
Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

## OPTIKAK
Ikus Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00
Uzuri
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK
Itziar Sarasketa
San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## HORTZ KLINIKAK
Irale
Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34
e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

## FISIOTERAPIA
Ainhoa Fisioterapia
Eragozpen fisikoa egongo balitz etxez etxeko zerbitzua eskeintzen da.
Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (15:00-21:00)
Jausoro, 6 behea
Olatz Fisioterapia
(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)
San Roke, 1 - Tel. 696 821 149
Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

## PODOLOGOAK
Iñaki Rivero
San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90
Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30
Oinberri
Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95
Astearte, ostegun eta ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

**Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**



SARGOATEKO ERROMERIA
uztailak 25, martitzena
EGITASMOA
11:00
Meza
12:00
Salda eta txorizoa
12:30
Bertsolariak
(German Meabebasterretxea
eta Xabier Arrizabalaga Ziarda)
eta Trikitilariak
14:00
Erromeriaren amaiera
OHARRA: Morkaiko Mendizale Elkartearen eta Udalaren iniziatibaz,
erromeria egunerako Sargoateko iturria konpondu eta berritu egingo da.
Aitzakia edarra berritutako iturria ikusi eta ur trago bat hartzera joateko.
ANTOLATZAILEAK: SALLOBENTEKO Jai Batzordea, MORKAIKO, ELGOIBARKO IZARRA, DEBEMEN eta ELGOIBARKO UDALA

### NAZIOARTEKO XX. FOLKLORE JAIALDIA

# Kamchatka eta Argentinako ballet taldeen erakustaldia

Siberia urrunean eta Argentinan egiten den balleta hurbilduko digute Koryakiko Ballet Nazionalak eta Argentinako Ballet Konpainiak Elgoibarko Nazioarteko XX. Folklore Jaialdian, uztailaren 24an, astelehenean, Olaizaga Kiroldegira (22:30).

Siberiako (Errusia) ekialdean, muturreko penintsula bat da Kamchatka. Aleksandre Gilik sortu zuen Koryakiko Ballet Nazionala, Palana hirian, 1965ean. Taldeak errepertorio aberatsa du eta tradiziozko instrumentuekin musika piezak ere jotzen dituzte.

Argentinako Ballet Konpainiak Kordoban (Argentina) du egoitza eta Miguel Angel Tapiak zuzentzen du. Zuzendariak ibilbide luzea egin du dantzaren inguruan eta urte horietan guztietan Argentinako musika eta dantza aztertu eta indartzen jardun du, herrialdeari ondare historiko eta kulturala helarazteko. Beste hainbat ezaugarriren artean, iraganeko gertaerak ikuskizun bihurtzeko trebezia aitortu diote beti Argentinako Ballet Konpainiari. Aniztasuna, erritmoa, antzezpena eta umore eszenak dira nagusi emanaldietan. Haritz Euskal Dantzari Taldeak, paseo, jota eta baltsez osatutako Lizarrako Larrain-dantza eta Gipuzkoako dantzak taularatuko ditu, besteak beste.



## Santumotz Erromeria berreskuratu dute Idotorben



38 urteko etenaldiaren ostean, abuztuaren 6an, domekan, ospatuko da Santumotz Erromeria (ikus egitaraua agendako orrietan) Idotorben. San Pedro bailarako jai batzordeko kideak, Jesus Azpiazu, auzoko alkatea buru dela, izan dira usadio zahar hau berreskuratzeko bultzatzaileak. Azpiazuren esanetan, "makina bat urtean egin zuten Santumotz erromeria gure zaharrek, abuztuko bigarren domekan, beti. Neuk ere ezagutu nuen, nire osaba, Julian Amoategi, izan baitzen azken soinujolea. Euriaren erruz Urkiola-Txiki baserriaren kortan egin zuten azken erromeria. Idiek tiratutako gurdietan eta asto gainean eramaten zituzten garai hartan freskagarriak eta San Migel eta Etxeberritik ere etortzen zen jendea oinez". Abuztuko 2. asteburuan egingo dute, Sallobenteko jaiekin bat ez egitearren. Santumotz lautadan izango da, Aubixatik Hiru-Iturrira bidean, Urkiola Txiki baserriaren ondoan.

## Egaña, Iturriaga, Lujanbio eta Agirre Aubixako bertso barnetegian

15-18 urte bitarteko gaztetxoentzat bertso-barnetegia antolatu du Bertsozale Elkarteak, Elgoibarko Udalarekin elkarlanean.

Idotorbe (San Pedro) auzoko Aubixa baserrian izango da, uztailaren 21etik 30era bitartean; beti ere, ongi pasatzeko, euskara lantzeko, bertsotan gozatzeko, bertsolarien bisitak jasotzeko, lagun berriak egiteko... helburuarekin.

Eskaintza luzea izango da: Bertso afaria Andoni Egaña eta Unai Itirriagarekin (uztailak 23); Arrate irratian emankizuna (uztailak 24); kantaldia eta Bertso-tribiala Mintxetan (uztailak 25); bertso afaria Maialen Lujanbio eta Amaia Agirrerekin (uztailak 26) eta saio berezia Plaza Handian (uztailak 28).

Hortaz, ekitaldi horietan parte hartzeko edo informazio gehiago jasotzeko jo Udaleko Euskara Sailera (Kultur Etxean goizez). Edota 943 744366 telefono zenbakira deitu goizez.

### Tanborradarako entseguak astelehen eta asteazkenetan

Uztailaren 25ean, Santiago Egunean ospatuko den nagusien tanborradan parte hartzeko entseguak hasi dira dagoeneko.

Astelehen eta asteazkenetan izango dira, gaueko 21:30ean Ikastolako lokalean.

### 600.000 euro Kilimon erreka biziberritzeko

Kilimon ibaiko kanalizazio obrak egin zirenean, bertako begetazio guztia edo gehiena behintzat galdu egin zen. Arrain gehienak desagertu egin ziren, eta betidanik Kilimon ibaian ugariak izan diren amuarrainik gabe gelditu da ibaia. Hau guztia berreskuratzeko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailak 600.000 euro emango dizkio Mendaroko Udalari. Besteak beste, Garagartza auzoko ibai ibilgua hobetuko da, ibai hondoko porlana kendu eta hondo naturala jarriko da, arrain eta begetazio berriak sortuko dira eta arrainen ibilbidea errazteko presa txiki bat jartzeko asmoa dago.

KARTEL LEHIAKETA

## Imanol Etxeberriak irabazi du Santana Jaietako kartel lehiaketa



Imanol Etxeberriak egindako marrazkiak iragarriko ditu aurtengo Santana jaiak. Mendaroko Ludotekak antolatutako lehiaketa honetan ume askok hartu dute parte, eta maila ona erakutsi dute gainera. Lan guztien artean, beraz, Imanol Etxeberriarena izan da onena.

### Uztailaren 22tik 26ra

Aurtengo Santana jaiak uztailaren 22tik 26ra bitartean ospatuko dira, Imanolek bere marrazkian azaldu duen bezalaxe. 8 urte ditu mendaroar gazte honek eta ez da izan lehiaketa honetan parte hartzen duen lehenengo aldia. Marraztea gustuko du, eta oso ondo egiten du gainera. Santana jaiak iristear daudela marraztu du, kamioi batek Mendarora ekarriko ditu Santa jaiak. Kolore asko erabili ditu eta jai giroko elementu desberdinak sartu ditu. Imanol Etxeberriak marrazteko materiala irabazi du.


MENDARO
ALBERTO
Arraindegia
Telf.: 943 03 36 22 • Mugikorra: 600 44 02 55

TOKI-ALAI
JATETXEA
Santa Ana jaietan
enkarguz egingo dugu lan
Mendarozabal, 2 behea • Tel.: 943 75 60 72

LANDA
ERRETEGIA
Jaiak ondo pasatu !!
Garagarza, 32 · MENDARO
943 75 60 28

## SANTANA JAIETAKO EGITARAUA

**Uztailak 16 (zapatua)**
16:30 Platerari Tiro Txapelketa Larraskandan

**Uztailak 16 (zapatua)**
ZAHARTZAROARI OMENALDIA
11:00 Kalejira Mendaroko Txistulariekin
12:00 Meza Goñati pilotalekuan
12:30 Euskal dantzak Mendaroko Trikitixa taldearen eskutik
14:00 Bazkaria Aizpe elkartean

**Uztailak 22 (zapatua)**
22:00 Garagaua. Musika taldeak Garagartzako Plazan

**Uztailak 23 (domekia)**
12:00 Txupinazoa
Kalejira Bizi Poza Txaranga, erraldoi eta buruhandiekin
14:30 Bazkari Herrikoia (Azpilgoetako Elizako plazatxoan)
15:30 Karaokea
18:30 Salbea Garagartzako Elizan.
Jarraian, Eliz Abesbatza
20:00 Txatunga Bembe kale animazioa
23:30 Erromeria Lisker taldearekin Herriko enparantzan
01:00 Play back lehiaketa
02:00 Diskoteka

**Uztailak 24 (astelehena)**
10:00 Trikitilarien kalejira
12:00 Haur Tanborrada Bizi Poza txarangarekin.
17:00 Haur festa pilotalekuan. Puzgarriak, tailerrak, zezen mekanikoa...
18:30 Sokamuturra txikia Herriko enparantzan
20:30 Dantzalditxoa Egan Taldearekin
23:00 Pirotecnia Zaragozanaren su emanaldia
23:15 Dantzaldia Egan taldearekin

**Uztailak 25 (martitzena)**
11:00 Getariko Musika Bandaren kalejira
12:00 Meza Garagartzako elizan
13:00 Getariko Musika Bandaren kontzertua Herriko Enparantzan
17:00 Pilota Jaialdia
20:00 Dantzaldia Son de Cuba taldearekin Herriko enparantzan
22:00 Nagusien Tanborrada Debako txarangarekin
24:00 Erromeria Son de Cuba taldearekin Herriko enparantzan

**Uztailak 26 (eguaztena)**
10:30 Prozesioa Garagartzatik Santanako ermitara
11:00 Meza Santanako ermitan
Jarraian, Erromeria trikitilari eta bertsolariekin
15:30 Bertso Bazkaria
18:30 Herri Kirol jaialdia Goñati pilotalekuan.
20:00 Bizi Poza txaranga eta buruhandiekin jai amaierako kalejira









GAZTETXEA

# SANTANETAKO NOBEDADEA

*Gaztetxeko giltzak jasotzeko irrikitan aurkitu ditugu Mikel, Eneko, Aitor eta Eneko, Mendaroko Gazte Asanbladako kideak. Santana jaiak gainean ditugu eta jaietarako Gaztetxe berriko ateak irekitzea gustatuko litzaieke.*



*Gazte Asanbladako kideak eta atzean Gazte Gunearen eraikina.*

Hiru urte pasa dira Mendaron azken Gaztetxea itxi zutenetik eta gazteak lanean hasteko desiatzen daude. Mojen konbentu zaharra zegoen lekuan Udalak eraiki duen eraikin berrian, Gazte Gunean, egongo da Gaztetxe berria. Lehen solairuan, hain zuzen ere. Bigarren pisuan, 12tik 16 urtera bitarteko gazteentzako gaztelekua egongo da.

Hortaz, Udalarena izan arren, Euskal Herriko gainerako Gaztetxeen funtzionamendu bera izango du Mendaroko Gaztetxeak, asanblearioa, alegia, Gazte Asanbladaren eskuetan egongo baita Gaztetxearen dinamizazioa. Alabaina, baldintza batzuk bete beharko dituzte. Batetik, bi hilabetean behin batzartu beharko dira Udaleko arduradunekin. Bilera hauetan hurrengo bi hilabeteetarako aurreikusten dituzten ekintzen berri eman beharko diete, eta gauzak nola doazen azaldu. Beste baldintzetako bat, Gaztetxearen kanpokaldea ezin izango dela ikutu izango da "barrua gure erara antolatzen lagako digute, baina kanpokaldean, fatxadan, ezingo dugu ezer margotu, pintadarik egin edo pankartarik jarri. Zerbait egitekotan ganoraz eta erakinaren estetika apurtu gabe izan beharko da", azaldu digute.








### Luxuzko instalakuntzak

Gaztetxe berriak 100m$^2$ inguruko azalera izango du. “astebukaeretan erabiliko dugun barra bat eta oholtza txiki bat jartzeko asmoa daukagu. Instalazioak luxuzkoak direla onartu behar dugu. Komun dexenteak, berogailua... ez daukate ezagutzen ditugun Gaztetxeen antzik. Gaztetxe pijo xamarra izango da, baina ez gaude kexatzeko. Insonorizatu gabe dago, baina behean sartzeko baino kontzertu handiagoak antolatzen ditugunean goiko aretoa erabiltzeko aukera izango dugula aipatu ziguten Udaletik”.

### Mendaroko Gaztetxearen historia

Mendaroko lehenengo Gaztetxea, Abade Etxeko Gaztetxea gisa ezaguna, Azpilgoetan egon zen, duela 5 bat urte. Sei hilabetez mantendu zen bertan. Handik atera eta hurrengo egunean, Mojen Konbentua izandakoan sartu ziren gazteak. Bigarren Gaztetxe honek are bizitza laburra izan zuen, lau hilabete: “Mendaroko jaietarako atondu eta uda osoan bertan egin genituen lanak alferrikakoak izan ziren 2003ko uda amaieran bota baitzuten”. Bitxia da, baina beti elizaren inguruan mugitu da Mendaroko Gaztetxea. Azken 3 urteak luze egin zaizkiela aitortu digute: “azken Gaztetxea bota zigutenetik, beheraldia igarri dugu, baina ganorazko lokalik ez edukitzeak zerikusi handia duela uste dugu. Urte bete baino gehiagoz, elizpean, bonbila argipean egiten genituen bilerak, edo baita ludotekan eta koadrilen lokaletan ere. Gaztetxe berriarekin mendaroarrak berriz inplikatuko direla da gure itxaropena. Behingoz irekitzen denean ikusiko dugu”.

### Inaugurazioa irailean

Gaztetxearen inaugurazio ofiziala irail aldean egiteko asmoa duten arren, Santana jaiak aprobetxatuko dituzte Gaztetxea ezagutzera emateko. “Herritar zein kanpotar guztiak daude Gaztetxea ezagutzera etortzeko gonbidatuta”.

XUMUXUA
Jatxetxeak
• Menua eta karta
• Taberna-kafetegia
• Enkarguak
• Ezkontzak

Luzaide
Mendarozabal, s/n
Tel.: 943 75 61 66
MENDARO

Marrua
"A" partzela
Itziarko industrialdea
Tel.: 943 19 94 74
ITZIAR

Orbe
Poligono Azitain, 7
Tel.: 943 20 12 61
EIBAR

SUKIA
ARROPADENDA
%20-ko beherapenak!
Herriko Enparantza, 9 behea · MENDARO
Telf.: 943 75 51 56

FERRETERIXIA
ELKAR, S.L.
Kilimon Hiribidea, 5 behea • MENDARO
Tel: 943 53 00 72 • Faxa: 943 53 00 73

MONT BLANC, LAU BIDE EUSKAL HERRIKO EMAKUMEENTZAT

# Lau emakume elgoibartar Mont Blacerantz abiatuko dira gaur

*Mont Blanc (4.808m) lau bide Euskal Herriko emakumeentzat* espedizioarekin, Mont Blanc mendia lau bidetatik igota, emakume helduek aisialdiaz gozatzeko duten eskubidea aldarrikatu nahi dute Marimendi elkartekoek. Berrogei urtetik gorako 21 emakumek parte hartuko dute ekimen honetan, tartean, lau emakume elgoibartarrek: Lourdes Zubiaurre, Lorea Vila, Arrate Zubia eta Marije Mendikutek. Gaur, hilak 14, abiatu dira Alpeetako mendirik garainenera. Mendi enblematikoa izateaz gain, zailtasun desberdinetako lau bidetatik igotzeko aukera ematen du Mont Blancek. Lourdes eta Lorea Goutteretik saiatuko dira eta Cosmiques-etik Arrate eta Marije. Lehenik, altuerarako girotzea egingo dute Suitzako Saas Fee bailaran, eta handik abiatuko dira Mendi Zurira. Uztailaren 20-23 bitartean aurreikusi dute gailurra jotzea. Asmoa, lau bideetatik abiatutako emakumeek tontorrean bat egitea da, erreza izango ez dela jakitun diren arren.



*Lurdes Zubiaurre, Lorea Vila, Arrate Zubia eta Marije Mendikute dira espedizioko emakume elgoibartarrak.*

**Emakumea, kirola eta euskara**

Emakumea, kirola eta euskara dira Marian Arin bultzatzaile izan den espedizioko osagai nagusiak. Alpeetara egin zuen irteera batean gizonezko mendizalez inguratuta zegoela ohartu zen. Kezka hau burutik ezin kenduta itzuli zen etxera, eta 40 urtetik gorako emakumentzako espedizioa antolatzea erabaki zuen. Emakumeok euskaldunak izatea izan zen Arinek jarri zuen bigarren baldintza. Euskal Herri guztitik batu ziren emakumeak. Ane Hernani oriotarra da taldeko gazteena 40 urterekin, eta zaharrena, berriz, Mariaje Atxalandabaso, 65 urteko gernikarra. Adineko emakumeengan ispilu efektua lortzea litzateke espedizio honen beste helburuetako bat, emakumeak kirolera hurbiltzea, alegia. Izan ere, parte hartzaileak lanbidez eta bizimoduz hiritar arruntak direla azpimarratu nahi izan dute. Gehienek, esaterako, ez dute harreman sakonik izan goi-mendiarekin. Hau dela-eta, mendi gidarien laguntza jasoko dute, nahiz eta gizonezkoak izan emakume gidaririk ez baitute aurkitu.





ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

ESKUBALOIA

# Lara Urain eta Urnobitza taldea saritu ditu Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak jokalari eta talde elgoibartarrak saritu zituen urteko batzarrean. Lara Urain jokalariak ligako goleatzaile onenaren saria jaso zuen. Cometel, jubenil mailako taldean aritu da aurten Lara. Urnobitza kadete mutilen taldeak bi sari jaso zituen. Batetik, Gipuzkoako Txapelketa irabazteari zegokiona, eta bestetik, Kiroltasun Saria. Joseba Sagasta eta Mikel Izeta, taldeko entrenatzaile eta delegatuak, jaso zituzten sariok taldearen izenean. Bestalde, Sanlo infantil mailako lau jokalarik: Aintzane Arizmendi, Estibaliz Bilbatua, Ane Urain eta Maite Bollar, Erkidegoen Arteko XIII. Txapelketan parte hartu zuten Cangas de Narcean (Asturias). Zortzi erkidegotako selekzioak aritu ziren norgehiagokan, eta Euskadiko selekzioak bigarren postua eskuratu zuen.




## Debarroko Pilota Txapelketaren finala galdu zuten jubenilek

Atxotegik eta Portuk ezin izan zuten Debarroko Pilota Txapelketaren finala irabazi. Partidu ona jokatu zuten arren, 22 eta 16 galdu zuten Antzuolako Olalde Elkarteko Mendizabal eta Azkarate pilotarien aurka. Gaizki hasi zuen partida Lagunak Taldeko bikoteak, 8 eta 0 galtzen hasi baitziren. Pilota aldaketaren ostean, 6 eta 8raino hurbiltzea lortu zuten arren, bizpairu tantoko aldea ezin kenduta ibili ziren partida guztian zehar. Azkenean, Antzuolara joan zen txapela. Bigarren geratu izanak ez dio merituirik kentzen egin duten txapelketari.



## [ EMAITZAK ]

**ESKU PILOTA**

Debarroko Txapelketa (Finala)

Atxotegi/Portu **16** - Olalde (Antzuola.) **22** (Jub.)

## [ AGENDA ]

**ESKU PILOTA** Sigmako frontoian

Sigmako Pilota Txapelketa (Finalaurrekoak)

**Barixakua, 14**

19:00 F. Conde – Erik (Aleb.)

19:30 I. Zubizarreta – J. Gabani (Kad.)

20:00 Ubera/Idoeta – German/Osoro (2. maila.)

20:45 Ansola/Beraza – Karmel/Txurruka (1. mai.)



MIKAVOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
MULTIKOPISTAK
FOTOKOPIADORAK
PLANOEN BIRREGILEAK
ERLOJU INDUSTRIALAK
MARRAZKETA MATERIALA
INFORMATIKA
FAX

ALBOKUAK INMOBILIARIA



ERROSARIO
- Azken etxebizitzak.
- Abuzturako bizitzera sartzeko moduan.
- 1.urteko asegurua dohainik.
- 168.300 eurotik hasita.

Liberty

Errosario, 12 • E-posta: albokuak@euskalnet.net
Tel.: 943 74 06 73 / 656 79 71 69

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- Pisua salgai Urasandin. Duplex-a. Dena kanpoaldera, oso eguzkitsua, guztiz berritua. 100m$^2$.
653 715141


**ETXEA SALGAI MENDARON**
Mendarozabal Auzoan.
3 logela, sukaldea, komuna eta egongela.
Dena kanpoaldera.
Bizitzera sartzeko prest.
943 03 38 44
686 62 21 92


### ALOKAIRUA

- Pisua alokatzen dut Cadizen. uztailean 300 euro asteko, abuztuan 400 euro asteko.
600067658/956832641
- Apartamentua alokatzen da Torreviejan. Erdialdean, hondartzatik 600 metrora. Igerilekuarekin.
628 58 45 35
- Pisua alokatzen dut Torreviejan, hondartzatik 200 metrora. Uztaila, abuztua eta iraila.
615 707 138
- Pisua hartuko nuke alokairuan.
645 499 105
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
626 91 49 04
- Logela bat alokatzen da.
635 20 64 36
- Etxea hartuko genuke alokairuan Ibiza edo Mallorkan, uztaila eta abuztuan. 620 049420

## [ AUTOAK ]

- Citroen C3 SX plus autoa salgai. 1.4cc, 75 zaldi. 31.510km. 2003ko urrikoa. Citroen garantia 2006ko urrira arte. C.C, E.E, A.A, C.D.
630288332/626574486
- Seat Ibiza 1.9 autoa salgai. 3 ate, zuria. 75 zaldi. 95ekoa. Merke.
943531597/679503380 (Aitor)
- Peugeot 3009 diesel autoa salgai. Merke.
639 57 25 32
- Hyundai coupe autoa salgai. Gorria. 10 urte. Egoera oso onean, beti garajean. 850.000pta.
678 438 202
- Opel Tigra autoa salgai. 1.4, 16v. Aire egokitua, beira igogailu elektrikoa, isteko sistema zentralizatua. 2.000 euro.
652 817 897

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- Lokal bat hartuko genuke Elgoibarren.
616224238/600009990
- Garajea alokatu edo saltzen da Leku Ederren, 4. pisuan.
696 977 528 (Asteburuetan edo gauez deitu)
- Garaje bikoitza salgai Urasandin, bi autorentzako. 30m$^2$
653 715141

## [ BESTELAKOAK ]

- Surf tabla salgai. Urte bat. Ikasteko egokia. Funda eta inbentoa. 250 euro. 647626693
- Untxartak (huroiak) salgai. Merke. 100 euro. 2 hilabetekoak.
658740788
- Karabana salgai Bañares kanpingean, Santo Domingo de La Calzadan. (Errioxa). 5 lagunentzako. 4.500 euro. Negoziatzeko aukera. 943 74 41 27
- Kiromasajerako kamilla tolesgarria erosiko nuke.
678 438 202 (Lurdes)
- Look K6 131 bizikleta salgai. Karbonozko kuadroa, Colnago L-40 urkila, ITM eskulekua, Mavic Helium gurpilak. 1.000 euro.
652 817 897
- Piragua salgai. Apurtezina. Prezio onean. 650 586144


**JULENE POLTSOAK**
Elgoibartar guztiei uztaila bukaeran denda istera doala adierazten die.


## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.
Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 € . Autoak 8 € . Eta bestelakoak 5 € . Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Emakume gaztea lanerako prest. 620 571707
- Emakumea lanerako prest.
943 53 15 53
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. 943 53 15 53
- Neska gaztea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaintzen, garbiketan...
609965932 (Blanca)
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Gauez edo egunez. Euskalduna, esperientziaduna. 943 74 44 33
- 42 urteko emakumea lanerako prest: Umeak edo nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin... interna moduan. 676 190 781
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo eta garbiketa lanak egiteko prest. Oso arduratsua.
659813248/943033601
- Gizonezkoa lanerako prest: Mekaniko, eraikuntza, edo beste edozein lan egiteko prest.
664 57 66 97
- Emakuea lanerako prest: nagusiak edo umeak zindu, garbiketa lanak... 664 57 66 97
- Pertsona bat eskaintzen da garbiketak lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko.
626 91 49 04
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Interna. 610 91 33 40
- Neska gaztea lanerako prest. Abuztuan nagusiak zaintzeko prest. 686 23 47 86
- Neska gaztea eskaintzen da udan umeak edo nagusiak zaintzeko. Astean zehar.
659980891/943743433
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. Lokalak, bulegoak, etxeak, elkarteak... Arratsaldez.
639 882 004
- Emakumea pertsona nagusia edo umeak zaindu, garbiketa lanak egin edo kamarera moduan lan egiteko prest. (Jakeline)
943 530803/676623843

### ESKAINTZA

- Erizaina behar da uztailaren 24tik irailaren 3ra San Lazaro Egoitzan. 943 466150 (Maider) edo 609318192 (Manoli)
- Kamareroa behar da. Gizarte Segurantza. 615 72 34 80
- Alemaniako herri batean lan egiteko au-pair bat behar da. Bi ume zaintzeko, 2-3 hilabeterako (luzatzeko aukera), berehala hasteko. 943 74 14 61
- Kamarera behar da.
943 25 43 66

## ABISUAK

- Eraztuna galdu dut. Urrezkoa, perla zuria eta brillanteekin.
943 74 2758
- Uztailaren 2an Aterpe taberna inguruan zilar koloreko bi gurpildun patinetea kendu zidaten. Udaltzaingora eraman edo deitu.
696845061
- Emakumearen eskumuturreko erlojua topatu nuen Errosario kalean. Udaltzaingoan laga nuen.

# [ZORIONAK]



Zorionak **potxolo** bi urte handi bete dituzulako. Muxu asko Ikastolako laguntxoen partez.



Zorionak **Ane** jabuztuaren 1ean urtebete egingo duzulako. Etxekoen partez muxu handi bat.



Zorionak **Irati** 4 urte egingo dituzulako. Lagunen eta bereziki, Enararen partez. Jarraitu beti bezala!



Zorionak **potxoli!** Muxu asko etxeko matrakari. bereziki, Ainhizeren partez.



Zorionak **Mikel** igandean 9 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta Aritzen partez.



Barreraren beste aldean itxaroten geunden, eibartarrak ere iristen zarete-eta! Zorionak **Maria!**



Zorionak **Aritz** ubihar 3 urte beteko dituzulako. Etxeko guztien partez.



Zorionak **Manar** zapatuan 5 urte egin zenituelako. Anaia, ama, aita eta osabaren partez.



Zorionak **Laida** abuztuaren 5ean 3 urte egingo dituzulako. Familiakoen, bereziki, Anerren partez.



Zorionak **Jone** zure 10. urtebetetzean. Familiako guztien partez.



Zorionak **Andrea** asteartean 10 urte egin zenituelako. Etxekoen eta bereziki, Maria eta txikien partez.



Egun ona pasa zure "taitantos" urtebetetzean. Noren partez? Asmatu!



Zorionak **Leire** zapatuan 3 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



Zorionak **Itoitz** uztailaren 9an 11 urte egin zenituelako. Gurasoen eta Urkoren partez.



Zorionak **bikote!** Egun ona pasako zenutelakoan, muxu askorekin zoriondu nahi zaituztegu. Ikastolako laguntxoak.



Zorionak **Maria eta Nora Mugerza**, uztailaren 14an eta 23an 2 eta 6 urte egingo dituzuelako. Familiakoen eta bereziki, Ionen partez.

Jaika
jatetxea
Abuztuko lehenengo astea zabalik
Menu bereziak 17 €-tik • Karta
Pedro Muguruza, 27 behea - Tel.: 943 74 10 29



asteburu bat ERRATZUN
irabazlea...
Juan Migel Arriola.
Patxi Uranga harategian saritua.

Alfredo Landa
686 262 244
E-posta: alfredolanda@hotmail.com
Txinako medikuntza tradizionala
Akupuntura • Sendabelarrak • Tuina masajea
Gaixotasunen tratamendua • Traumatismoak • Minak
Edergintza • Obesitatea • 5 zaporetako dietak
Osasunerako ariketak • Chi Kung
Kontsulta: Goiz eta arratsaldez
**Astelehenetik - Ostegunera**
Juan de Ajuriaguerra 10 behea • BILBO
**Ostirala**
Urbitarte, 11-2 • ELGOIBAR

# Zerbitzuak

**OHARRA:**

Iritsi dira oporrak BARRENera. Hurrengo alea abuztuaren 23an jasoko duzue. Ondo pasa!

## [ OKINDEGIA ]

**UZTAILA**

16 igandea FOTERO
23 igandea IBARRENEA
25 asteartea BOLINTXO
30 igandea DOÑA MERCEDES
31 astelehena EIZAGIRRE

## [ FARMAZIAK ]

**UZTAILA**

| | **GUARDIA** 24 ORDUZ |
|---|---|
| 14 | Yudego |
| 15 | Zabaleta |
| | *(* Goizez Bidasolo)* |
| **16** | Zabaleta |
| 17 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 18 | Fernandez |
| 19 | Yudego |
| 20 | Zabaleta |
| 21 | Fernandez |
| 22 | Etxeberria *(Errosario)* |
| **23** | Etxeberria *(Errosario)* |
| 24 | Zabaleta |
| 25 | Fernandez |
| 26 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 27 | Yudego |
| 28 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 29 | Fernandez |
| | *(* Goizez Etxeberria Errosario)* |
| **30** | Fernandez |
| 31 | Zabaleta |

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**ABUZTUA**

| | **GUARDIA** 24 ORDUZ |
|---|---|
| 1 | Zabaleta |
| 2 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 3 | Fernandez |
| 4 | Yudego |
| 5 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| **6** | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 7 | Fernandez |
| 8 | Yudego |
| 9 | Zabaleta |
| 10 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 11 | Zabaleta |
| 12 | Yudego |
| **13** | Yudego |
| 14 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 15 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 16 | Yudego |
| 17 | Ibañez |
| 18 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 19 | Ibañez |
| | *(* Goizez Bidasolo)* |
| **20** | Ibañez |
| 21 | Bidasolo |
| 22 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 23 | Ibañez |
| **24** | Bidasolo |
| 25 | Ibañez |
| 26 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| **27** | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 28 | Ibañez |
| 29 | Bidasolo |
| 30 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 31 | Fernandez |

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## SALLOBENTE-ERMUARAN BAILARAKO JAIAK

**Abuztuak 9 (eguaztena)**
19:30 Kanpai jotze eta txapligu jaurtiketa
Ondoren, Errosarioa eta meza, auzoko hildakoen omenez
Beranduago, makailau-jan herrikoia

**Abuztuak 10 (eguena)**
**San Lorentzo Eguna**
11:00 Meza Nagusia
Ondoren, Aurreskua Haritz EDTrekin
12:30 Pilota partiduak
23:00 Erromeria Lutxurdio eta Aitziberrekin
Ondoren, Bolo saioak

**Abuztuak 11 (barixakua)**
**Txiki Eguna**
17:30 Haurrentzako jolasak
Ondoren, Gorriti eta bere abereak eta txokolatada
20:00 Emakumeen Bolo Txapelketa
23:00 Erromeria Baltzola anaiekin

**Abuztuak 12 (zapatua)**
16:00 Mus Txapelketa
22:30 Erromeria Kupela taldearekin
00:00 Bolo txapelketa

**Abuztuak 13 (domekia)**
11:00 Meza Nagusia
Ondoren, salda eta txorizoa
12:00 Pilota partiduak
14:00 Bertso bazkaria Jose Agirre eta Amets Arzallusekin. Izer eta eta Alabier trikitilariek alaituta
18:00 Herri Kirolak. Aizkolariak: Jon Rekondo eta Mugerza II. Harrijasotzailea: Goenatxo.
Ondoren, zezenak
22:30 Bolo saioak
23:00 Izer eta Alabier Lajarekin erromeria

## IDOTORBE (SAN PEDRO) SANTUMOTZ JAIAK

**Abuztuak 6 (domekia)**
10:30 Meza Santumotz lautadan
Ondoren, Peñagarikano eta Mendiluze bertsolariak
12:00 Harri jasotzaileak: Goenatxo aita-semeak
Tarteta, Laja eta Lutxurdio trikitilariek alaituko dute goiza
14:30 Bazkaria Aubixa Barnetegian (Izena emateko: 943 74 19 09)
Ondoren, Bertsolarien saioa eta erromeria, iluntzera arte

## AZKUE (SAN ROKE) AUZOKO JAIAK

**Abuztuak 15 (martitzena)**
**San Roke Bezpera**
17:00 Kanpai jotze eta txapligu jaurtiketa jaiei hasiera emanez
20:00 Errosario Santua
20:30 Afaria Oskar Alberdi eta Beñat Lizaso bertsolariekin. Tarteka, Izer eta Alabier-en saioak

**Abuztuak 16 (eguaztena)**
**San Roke Eguna**
08:00 Txapliguak eta txupinazoa botatzea
11:00 Meza nagusia bertako elizan, haritz EDTren saioarekin
Berehala, Zaldi lasterketa bertako zelaietan
18:00 Umeentzako jolasak eta sorpresa
Ondoren, Zezentxoak, poniak, e.a.
23:00 Demaseko erromeria, Jon Ostolaza eta Rakel Pujanarekin
01:00 Bolo jokoa

**Abuztuak 17 (eguena)**
**San Roke Txiki Eguna**
08:00 Txapliguak eta txupinazoa
11:00 Bailaran hildakoen aldeko meza
12:30 Sokatira lehiaketa, ezkondu eta ezkongabeen artean
Ondoren, zaldi proba erakustaldia
14:00 Anaiarteko bazkaria, Gardoki aita-alabek alaituta
19:00 Herri Kirolak. Aizkolariak: Mugerza eta Atutxa. Harrijasotzailea: Ostolaza
Jarraian, zezentxoak, poniak, e.a.
22:30 Goizaldera arteko erromeria Gardoki aita-alabek alaituta, eta bolo jaurtialdia
01:00 Zozketa

## [ 7 BARIXAKUA ]

19:00 **SIGMAKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALAURREKOAK**
Sigmako frontoian

## [ 24 ASTELEHENA ]

22:30 **ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XX. FOLKLORE JAIALDIA**
Taldeak: "Koryakiko Ballet Nazionala" (Kamchatka); "Argentinako Ballet Konpainia" eta Haritz EDT
Olaizaga Kiroldegian
Antolatzailea: Haritz Euskal Dantzari Taldea

## [ 25 MARTITZENA ]

11:00 **SARGOATEKO ERROMERIA**
Sargoaten
11:00 **SIGMAKO PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK**
Sigmako frontoian

## ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR PLAZA HANDIAN

**«Ice Age 2: El Deshielo»**
14, barixakua: 22:30
**«X-Men»**
15, zapatua: 22:30
**«Mios, tuyos y nuestros»**
21, barixakua: 22:30
**«Himalaya»**
22, zapatua: 22:30
**«Sin Miedo»**
23, domekia: 22:30
**«La niñera magica»**
28, barixakua: 22:30
**«Salvaje»**
29, zapatua: 22:30
**«Oliver Twist» (euskaraz)**
30, domekia: 22:30
**«Cuando llama un extraño»**
31, astelehena: 22:30
**«Scary Movie 4»**
4, barixakua: 22:30
**«Vecinos Invasores»**
5, zapatua: 22:30

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## SINOPSIAK

### «Ice Age 2: El Deshielo»




Zuzendaria: Carlos Saldhana
Marrazki bizidunak( 93 minutu)
Heroiak itzuli dira: Manny, mammut iletsua, Sid nagia, Diego, sable hortzadun tigrea, eta nola ez, beti ezkurraren atzetik dabilen Scrat kattagorria. Izotz aroa bere azkenera iristen ari da, izotz guztia urtzen ari da eta animalientzat ezezagunak ziren paisaia zoragarriak agertu dira izotz geruza zuriaren azpian. Gure lagunek aurkituko dute non gozatua, eta ez da faltako izotz irristaketa sekuentzia zororik ere.



**1948**. urteko erretratu zahar hau **Begoña Muguruzak** laga digu. Argazkian ageri diren emakume guztiak San Roke bailarakoak dira. Ikusten den bezala, dotore-dotore jantzita daude. Moto eta guzti ageri zaizkigu erretratuan. Garai hartarako neska modernoak zirela esan daiteke. Lagun artean irteerak egin eta erromeriara joateko ohitura zeukaten. Gogora ditzagun zein diren neska panpoxa hauek.

Goian, ezkerretik eskumara: **Lucia Arrieta, Pilar Agirrezabal, Crucita Arrieta (Kurutze baserrikoa), Begoña Muguruza (Agarre Txiki), Juanita Gabilondo ( ) (Ibartola) eta Rosario Arrieta.**
Makurtuta: **Lourdes Leiaristi (Parapan baserrikoa) eta Conchita Arrieta.**



**I. URTEURRENA**

2005eko uztailaren 19an, 83 urte zituela hil zen
***Maria Isabel Oteiza***ren
oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, uztailak 22, arratsaldeko 19:00etan San Bartolome Parrokian eta Donostiako San Martin Gotzaina elizan.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



# ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

***Ordenagailu bidez*** *teoria ikasteko gela berria* !



**ORDUTEGIA**

**10:00**etatik-**12:30**era
**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



# arantxa
haur jantziak



jose de artetxe kalea, 11
tel.: 943 81 24 29
faxa: 943 81 61 32
**azpeitia**





# ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XX. FOLKLORE JAIALDIA



UZTAILAK 24
ASTELEHENA
22:30ean





OLAIZAGA
KIROLDEGIAN

EUSKAL HERRIA - KAMCHATKA - ARGENTINA

Elgoibarko Udala
Musika eta Dantza
Udal Fundazioa

Gipuzkoako
Foru Aldundia

SAREA

Elgoibarko
Kirol Patronatua

TXANKAKUA

Txankakua
Merkatari Elkartea

Haritz
Euskal Dantzari Taldea